BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4259

AGINDUA, 2011ko ekainaren 22koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, onartu egiten da Agindu honen I. eranskinean aipatzen diren enpresek eman zitzaizkien diru-laguntzei uko egitea.

Apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuak, enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen ditu.

Apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan ezarritako diru-laguntzak orduko Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren 2005eko maiatzaren 4ko Aginduak eskaintzen ditu 2005. urterako.

Orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko sailburuaren 2005eko abenduaren 26ko Aginduaren bidez ebatzi ziren enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko prozedura.

Enpresa batzuek uko egin diete aipatutako diru-laguntzei. Enpresa horiek Agindu honen I. eranskinean jasotzen dira.

Kontuan hartuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 90.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek atzera egin dezaketela beren eskaeran, edo, ordenamendu juridikoak debekatzen ez badu, uko egin diezaieketela beren eskubideei.

Organo honi dagokio Agindu hau emateko eskumena, xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen apirilaren 23ko 91/2002 Dekretua eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua.

Honako araudi hau aztertu da: apirilaren 23ko 91/2002 Dekretua, enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak ezartzen dituena; 2005eko maiatzaren 4ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuarena, apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan ezarritako diru-laguntzak 2005. urterako eskaintzen dituena; abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearena, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua; uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena; eta oro har ezarri daitekeen gainerako araudia. Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Onartu egiten da Agindu honen I. eranskinean aipatzen diren enpresek eman zitzaizkien diru-laguntzei uko egitea. Galdu egingo dira, ondorioz, diru-laguntza horietatik etorritako diru-irabaziak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioa Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

DIRU- LAGUNTZEI UKO EGIN DIETEN ENPRESA ETA PROIEKTUAK

Erreferentzia zenbakia		Enpresa eskatzailea	Enpresa eskatzailearen egungo izena	Proiektua	Udalerria/Lurraldea	Diru laguntza (euroak)	Uko egitea
430	2005	Fertiberia SA	Fertiberia SA	NO_X emisioen etengabeko neurketa	Barakaldo Bizkaia	10.434,60 €	11-10-2006
431	2005	Fertiberia SA	Fertiberia SA	NO_X emisioen gutxitzea	Barakaldo Bizkaia	15.087,00 €	11-10-2006
509	2005	Etxe-tar SA	Etxe-tar SA	MGL teknologia garbia jartzea	Elgoibar Gipuzkoa	4.841,34 €	18-02-2011
512	2005	Etxe-tar SA	Etxe-tar SA	Margotzeko prozesua aldatzea	Elgoibar Gipuzkoa	642,67 €	23-02-2011
517	2005	Arcelor Alambron Zumarraga SA	Arcelormittal Gipuzkoa SLU	Keak xurgatzeko sistema hoztaile batekin handitzea	Zumarraga Gipuzkoa	19.651,43 €	28-02-2011
528	2005	Danobat S Coop	Danobat SCoop	Agortutako taladrinak eta lurzorua garbitzeko urak lurrundu eta kontzentratzeko sistema	Elgoibar Gipuzkoa	1.839,01 €	28-01-2011
553	2005	Ingeclima SL	Ingeclima SL	UNE EN normaren araberako ISO 14001 (2004) ingurumen kudeaketarako sistema ezartzea	Erandio Bizkaia	2.173,23 €	29-10-2010

Erreferentzia zenbakia		Enpresa eskatzailea	Enpresa eskatzailearen egungo izena	Proiektua	Udalerria/Lurraldea	Diru laguntza (euroak)	Uko egitea
564	2005	J. M. Vigiola SA	J. M. Vigiola AS	UNE EN normaren araberako ISO 14001 (2004) ingurumen kudeaketarako sistema ezartzea	Muskiz Bizkaia	2.198,06 €	13-12-2010
620	2005	Encover SA	Encover SA	UNE EN normaren araberako ISO 14001 (2004) ingurumen kudeaketarako sistema ezartzea	Basauri Bizkaia	6.591,30 €	23-11-2010
623	2005	Moresbay SL	Moresbay SL	Ingurumen kudeaketarako sistema ezartzea	Arrankudiaga Bizkaia	3.783,00 €	22-10-2010
643	2005	Intza SA	Intza SA	ISO 14001 ezartzea	Azkoitia Gipuzkoa	2.773,45 €	22-12-2010
664	2005	Befesa Zinc Aser SA	Befesa Zinc Aser SA	Zepa erauzi eta hozteko sistema hobetzea	Erandio Bizkaia	14.412,96 €	30-12-2010
666	2005	Befesa Zinc Aser SA	Befesa Zinc Aser SA	Mahuka-iragazkia aldatzea	Erandio Bizkaia	5.028,55 €	30-12-2010
669	2005	Befesa Zinc Aser SA	Befesa Zinc Aser SA	Jalkitze-ganberako materiala garraiatu eta erauzteko sistema	Erandio Bizkaia	4.676,60 €	30-12-2010

Erreferentzia zenbakia		Enpresa eskatzailea	Enpresa eskatzailearen egungo izena	Proiektua	Udalerria/Lurraldea	Diru laguntza (euroak)	Uko egitea
706	2005	Acid Regeneration Servicie Spain SA	Acid Regeneration Servicie Spain SA	Hondakin urak bidaltzeko instalazioaren egokitzea, ura prozesuko garbiketan berrerabiltzeko	Vitoria-Gasteiz Araba/Álava	1.047,12 €	09-02-2011
707	2005	Acid Regeneration Servicie Spain SA	Acid Regeneration Servicie Spain SA	Instalazioan hobekuntza, ISO 14001 normaren araberako ingurumen kudeaketarako sistema ezartzeko	Vitoria-Gasteiz Araba/Álava	1.958,18 €	10-02-2011
723	2005	Shuton SA	Shuton SA	Boladun torlojuen azkoinak hariztatzeko makina	Legutio Araba/Álava	50.770,60 €	03-10-2010